

ZEIN BETEKIZUN BETE BEHAR DUT GAZTEDE ENKARTERRI 2016 BEKA BAT JASO AHAL IZATEKO?

-18 eta 25 urte bitartean izan behar dituzu praktikaldia hastean.

-Bizkaiko Foru Aldundiarekin Gaztedi Enkarterri hitzarmena sinatu duten Enkarterriko 9 udalerrietako batean errolatuta egon behar duzu (Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Sopuerta eta Zalla).

-Lanbide-heziketako erdi-mailako edo goi-mailako titulua edo unibertsitateko titulua izan behar duzu.

-Ezin duzu izan hiru hilabetetik gorako lan-esperientziarik jasotako prestakuntzarekin lotura zuzena duten lanpostuetan.

NON ETA NOLA EMAN BEHAR DUT IZENA?

Praktiken eskaintzak ematen direnean, Lanbiden izena emanda egon behar duzu. Halaber, enplegua eskatzeko hautatzen dituzun okupazioek bat egin behar dute beketan eskainitakoekin.

NOLA HAUTATUKO DIRA BEKADUNAK?

Lanbidek bere datu-baseak egiaztatuko ditu. Bestalde, zerrenda bat egingo du enpresek eskatzen dituzten eta prestakuntza-betekizunak betetzen dituzten Enkarterriko gazteekin. Hautagaiak aztertutakoan, hautagaien zerrenda bat helaraziko zaie enpresei. Ondoren, enpresak erabakiko du nor den, pertsona horien artean, beka eskuratzeko egokiena.

ZEIN DA BEKAREN IRAUPENA?

Bekaren iraupena sei hilabetekoa izango da, enpresan egiten den lehenengo praktika-egunetik aurrera zenbatzen hasita. Enpresak hilabetez ixten badu oporrak direla eta, epe hori luzatu egingo da; beraz, 7 hilabeteko iraupena izango du guztira.

ZEIN DA ZENBATEKOA?

Bekadun bakoitzak 460 euro inguru jasoko ditu, hileroko, 6 hilean zehar. Enpresa batek hilabetez ixten badu oporrak direla eta, bekadunak ez du ordainsaririk jasoko opor-saso horretan.

GARRAIO BEKA DAUKAT?

Ez, lanaldi etena egiten denean, garraioa eta bazkaria bekadunak ordaindu behar ditu.

ZEIN DIRA NIRE BETEBEHARRAK?

Ezarritako egutegia eta ordutegiak betetzeaz gain, noski, praktikak egiten dituen pertsonak ikasteko eta bera hartzen duen enpresaren barneko funtzionamenduaren arauak errespetatzeko jarri behar du (prozedurak betetzea, datuen konfidentzialtasuna...). Halaber, bete egin behar du Lanbidek edo Enkarterriko gazteria- eta enplegu-zerbitzuek eskatzen duten edozein dokumentu.

BEKA BAT JASOTZEN BADUT, GIZARTE SEGURANTZAN KOTIZATUKO DUT?

Alta emango zaizu Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean, lan-jarduerei ez dagozkien praktiketako Kotizazio Kontuaren Kodean.

NORA JO BEHAR DUT ARAZOREN BAT BADUT?

Gaztedi Enkarterri hitzarmena sinatu duten 9 udalerrietako gazteria- eta enplegu-teknikariak arduratuko dira bekaren helburua betetzen dela bermatzeaz. Praktikek irauten duten bitartean harremanetan jarriko dira bekadunekin eta enprekin, zenbait alditan, praktiken bilakabidea egokia dela egiaztatuko. Era berean, enpresak edo bekadunak arazoren bat atzematen badu, eurekin jarri behar dute harremanetan.

¿QUÉ REQUISITOS TENGO QUE CUMPLIR PARA OPTAR A UNA BECA GAZTEDE ENKARTERRI 2016?

- Has de tener entre 18 y 25 años al comienzo del periodo de prácticas.
- Has de estar empadronado/a en alguno de los 9 municipios de Las Encartaciones firmantes, junto a Diputación Foral de Bizkaia, del convenio Gaztedi Enkarterri (Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza, Sopuerta y Zalla).
- Estar en posesión de un título de Formación Profesional de Grado Medio o Superior o titulación universitaria.
- No tener más de tres meses de experiencia laboral previa en puestos directamente relacionados con la formación cursada.

¿DÓNDE Y CÓMO ME TENGO QUE APUNTAR?

Has de estar inscrito/a en Lanbide en el momento en que las ofertas de prácticas son entregadas y tener entre las ocupaciones en las que demandas empleo, las ofertadas en las becas.

¿CÓMO SE HACE LA SELECCIÓN DE LOS/AS BECADOS/AS?

Lanbide comprobará sus bases de datos y efectuará una lista con las personas jóvenes de Las Encartaciones que tengan demandada alguna de las ocupaciones que soliciten las empresas y que cumplan los requisitos formativos. Una vez realizado el sondeo de candidatos/as, llegará a las empresas un listado de los/as mismos/as. La empresa será quien decida, de entre esas personas, quien es la más adecuada para acceder a la beca.

¿QUÉ DURACIÓN TIENE LA BECA?

La beca tiene una duración de seis meses a partir del primer día de prácticas en la empresa. En el caso de que la empresa cierre un mes por vacaciones, ese periodo se prolongará siendo en total 7 meses desde el inicio.

¿QUÉ CUANTÍA SUPONE?

Cada becado/a recibirá aproximadamente 460 euros brutos al mes durante 6 meses. En el caso de que una empresa cierre por vacaciones un mes, el/la becado/a no recibirá remuneración dicho mes.

¿TENGO BECA DE TRANSPORTE?

No, el transporte y la comida en casos de jornada partida corren de cuenta del/la becado/a.

¿QUÉ OBLIGACIONES TENGO?

Al margen del cumplimiento lógico del calendario y los horarios que se estipulen, la persona en prácticas ha de mostrar disposición a aprender y a respetar las normas de funcionamiento interno de la empresa que le acoja (cumplimiento de los procedimientos, confidencialidad de datos...). Asimismo habrá de cumplimentar cualquier documentación que por parte de Lanbide o por parte de los servicios de Juventud y Empleo de Enkarterri se le pudieran requerir.

¿SI OBTENGO UNA BECA, ESTARÉ COTIZANDO A LA SEGURIDAD SOCIAL?

Estarás dado/a de alta en el Régimen General de la Seguridad Social en el Código de Cuenta Cotización correspondiente a prácticas no laborales.

¿DÓNDE ME TENGO QUE DIRIGIR EN CASO DE TENER ALGÚN PROBLEMA?

Los/as técnicos/as de Juventud y Empleo de los 9 municipios firmantes del convenio Gaztedi-Enkarterri serán los/as encargados/as de velar por que se cumpla el objetivo de la beca. Durante la duración de las prácticas se pondrán en contacto con los/as becados/as y con las empresas en varias ocasiones para comprobar el correcto desarrollo de las mismas. De igual modo, si empresa o becado/a detectan algún problema, habrán de ponerse en contacto con ellos/as.